

KULTURKRITIKA


» LIBURUA

Familia osoarentzat



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



Ixtorio hautatuak

ROALD DAHL

Itzultzailea: Luis Berrizbeitia
Elkar, 1996

Ehun urte aurten Roald Dahl jaio zela. Ospakizun handien ondotik, ordea, gure txikian: helduentzako bilduma bakarra dugu euskaraz, antologia modu bat, zazpi ipuin eta egilearen idazletzarako bideak azaltzen dituen narrazioa. Egia, ez da asko-asko, baina gutxiago da ezer ez. Haur eta gazteentzat idatzi zituenak besterik dira, famako egin zuten, imajinario kolektiboaren parte ditugu dagoeneko. Aldiz, helduentzat idatzi zuenean ere, presente izan zituen adin txikikoak. Bilduma irekitzen duen *Guardasolaren gizona* izenekoa, esaterako, areago tituluan berean agertarazten dituen *Animaliekin hitz egiten zuen haurra* ipuinean. Iduri luke bizitzara jaiotze horretan zedarrizten direla gerora helduaroan garatuko diren hainbat jaidura, jokamolde, jarrera. Luze gabe, Dahlek ondotoxo ezagutu zuen gerrak izan lezakeen hazia; *Beltxarga* kontakizunak erakusten duen “nerabeen ankerkeriarako gaitasun kasik infinituan”, –Edorta Jimenezen hitzak hona ekartzeko–.

Narrazio guztiek dute irakurketa arretatsuago bat; *Autostoplaría* deiturikoan *hatz-ginak* –auto-stop egileak– erakusten digun moduan, zeinak ebasten dion poliziari berari jarri berri dion isuna: “Galtzaileei ez diet sekula ezer kentzen. Eta behartsuei ere ez. Dutenengana baizik ez naiz joaten, hau da, irabazle eta aberatsengana”. Eta nik ez dakit muga zehatz non den, zergatik hauek diren zuzen helduentzako, eta beste haiek haur eta gazteentzako literatura. Esan nahi dut, niri ere iruditu zaizkidala liburu honetakoak, Jose Luis Otamendik 1996 urrun hartan esan bezala, “edozeini –eta denei– gustatzeko mo-

duko literatura”. “Familia osoarentzako modukoa”, alegia. Kontatzen direnengatik –ez dago intereseko zerbait aurkitzen ez diozun testurik–, baina, halaber, kontatzeko erabiltzen duen moduagatik. Zuzena, zehatza, xehetasunez betea –“detaile asko sartu. Hori-xe da garrantzitsuena gure ofizioan, detaile txipiak”–, eta nola-halako umore ukitu bat duena –“umore finekoa bazara errexago baizik ez da”–. Dena den, eta Dahli inolako meriturik kendu nahi gabe, bat nator Otamendik azpimarratutakoarekin: “Luis Berrizbeitia-aren itzulpena iruditzen zait argitalpen honen alderdirik jakingarriena. Gozo, doi eta gertu ematen zaigu berez arrotz zena. Horregatik bakarrik merezi du irakurtzeak”.

Nola egin nintzen idazle narrazioan, Dahlen biografiako pasarte esanguratsuak ezagut daitezke. Ipuin baterako baino gehiagorako emango luketenak denak. Ez zen sobera aldeko, idazlea: “Benetako gertakarietan oinarritutako kontakizunak idazteak, ez dauka tirarik enetzat”. Fikziozkoak ere ez, gehiago ezin idatziko ditu. Gehiago euskaratzeko aukera geratzen zaigu guri, hartara. ■

Roald Dahl idazle galestarra (Landaff; Cardiff, 1916–Great Missenden; Buckinghamshire, 1990).

